

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
ALLANDE SOKARROS**Maule-Lexarre (Zuberoa)**

Matalazen martirioaren urratsetan

Bernat Goihenetxek, *Matalaz* goitizenez nabarmen gehiago ezagutua den Mitikileko apaiz zenak, 1661. urte amaieran pairatu zuen martirioaren urratsetan ibilaraziko gaitu txango honek. Zuberoako hiriburu Maule-Lexarre apur batean ezagutzeko aukerarik emango digu gaurkoa eta iragana uztartze honek.

Pilota plaza, Udaletxea, Anduraingo jauregia eta Kurutze Zuria dauden Lexarreko plaza izango dugu abiapuntu. Lexarre bai, ez Maule. Izan ere, Zuberoako hiriburutzat oker eman ohi den Maule, Uhaitzandia errekaen beste ertzean kokatutako hiri zatia baita.


Lexarreko plaza hau, 1922. urtera arte, ez zen gainerat Mauleko udal jabetza, bai ordea Zuberoako Mendi

Elkargoarena. Plazaren mutur batean, Anduraingo Jauregi alboko etxe zaharrean biltzen zen Lexarreko Gortea, Zuberoako antzinako egitura burujabeetatik bata. Alboan dauka, beraz, Maule-Lexarreko eraikin ikusgarrien eta dotoreenetatik bat: Andurain de Maytie jauregia. XVI. mendearen amaiera eta XVII. mendearen hasiera bitartean eraiki zen etxe handi eta aberats hau, Olorueko (Biarno) gotzaina

zen Arnaud de Maytie eraikiarazia. Berpizkundeko arkitektura dauka eta haren berezitasunen artean dago oho-lez egindako hegatsa eta hura sustatzen duen zurteria.

Gurutzearen aurretik, intxaurrondoa

Eraikin dotore honen eta Mauleko udaletxearen artean kokatzen da XVI. mendean eraikitako Kürütze





Ezkerrean, Lextarreko plaza, Udaletxetik ikusita. Eskuinean, Berrauteko kapera. Ustez, han daude lurperatuta Matalazén gorpuzkinak.

Xuria. Historia ikertzaileek diotenez, kurutze honi eskegi zioten Matalazén burua, zuberotar borrokalarien aitzindari jarritakoa 1661eko azaroaren 8an, Frantziako esku-makilek hil eta gero. Historiak dioenez beti ere, zuberotarrek berehalaxe berreskuratu zuten Matalazén burua eta ustea bada gaineratiko beste gorpuzkinekin batera Berrauteko elizatxoaren aldarepean ehortzia izan zela.

Matalazén martirioaren kokagune izan aurretik, antza, Kürütxe Xuriaren leku hori bera Zuberoako burugaintasunaren lekuko izan zen. Hortxe landatua zen Lextarreko Gortearen justizia ebazgunea zen eltzaur edo intxaurrondoa. Hala, Jean de Jaurgain jaunak Gaskoniako lehoia sarrarazi arte, Lextarreko eltzaurra zen Zuberoako herri ikurra.

Kürütxe Xuriaren beste aldean da, beraz, gaur egun Mauleko Udaletxea den Montreal jauretzea. Honen historia luzea laburbiltzearen, erran dezagun Agaramontar Enrikek XII. mendean eraikiarazi ondoren, De Treville mosketarien buruzagiaren seme Arnaud Jean de Peyrek erosi zuela 1676an eta bere iloba Armand de Montreali oinordean utzi. Armand de Montreal hau Mauleko kapitain-jauregizain, hots Frantziako erregearen ordezkari nagusi, izan zen. Historia garaikideagoan, etxe handi hau Suprefetura izan zen 1789 eta 1927. urteen artean.


Burugaintasunetik menpekotasunera

Alabaina, ibilbide honetan ez dugu zuberotarrek “Peko Arrüa” (Behoko Kalea) deitu ohi dioten Victor Hugo karrika jarraian hartuko.

Ordea, “Galerietako zübüa” bezala ezagutua den zubia igarota, zuzen joko dugu eta berehala ezker alderat, iturri baten izkinean abiatzen den karrika hertsu eta aldapatsuan gora. *Rue du Fort* (Gotorlekuaren karrika) izena ondo emana du, Mauleko gaztelu zaharrera igotzeko aukera emaiten baitu. Aldaparen amaieran topatuko dugun bide sardan eskumara jarraituz, laster iritsiko gara XII. mendean eraikitzen hasi ziren gaztelu zaharrera. Harresi sendoak, dorre bat, lubakiak, hiru arkuko zubi altxagarri ohia eta barruan kabazuloa baino ez bazaizkio geratzen gaur egun, “Guyanako gaztelu gotorrena” bezala emana zen XV. mendean.

Frantziako botere menperatzailearen lekukoa dela erraitea ez da guztiz egia. Hala da, frankoen errege ordezkari ziren kapitain-jauregizainen egoitza zela, baina aurretik, XI. eta XIV. mendeen bitartean, Zuberoako

Mauleko gaztelu zaharra.



bizkondeen bizilekua izan zen, hauen babesle zelarik Nafarroako Erresuma. Historian zehar, suntsiketak eta suteak jasan ditu behin eta berriro. Aldiz ez da ahaztu behar –Frantziatzale amorratu batzuek bezala– gure arbaso zaharren gaztelu bat zela leku horretan, aztarna argi batzuek frogatzen dutenez.

Frantziaren menperatze basatiaren ondorioa izan zen *Matalaz* Urdirñarben atxilotzea 1661eko urriaren 13an, Mauleko gaztelu zaharrera eramaitea eta han bertan epaitzea eta lepoa moztea, 1661eko azaroaren 8an.

Maule gaineko eliza, bi aldiz katedrala!

Gure herriaren menperatzearen gertaera historiko samin hauek gogoan ditugula, buelta emango dugu eta gorantz egitean, albotik igaro gatzaizkion De Bela jauretze-ko kanpoko eskaileretan behera, Maule gaineko plazara jaitsiko gara. Gotorlekuak babesten zuen bastida hau XIII. mendean eratu zen, Ingalaterrako erregeak Akitaniaren jabe zirelarik. Erdi Arotik hasita, mendetan zehar, garrantzi handiko merkataritza gunek izan den bastida honen berezitasun aipagarrietatik bat da Andra Maria eliza. Izan ere, eraikin xume hau bi aldiz izan zen katedrala, lehenengo batean 1378 eta 1419. urteen bitartean, Eliza kristauaren zatiketa handian, eta bigarrenaz erlijio gerren garaian, 1562 eta 1599 artean. Lehen aldi, Zuberoako Eliza Erromako Aita Santuaren alde jarri zen eta bigarrenean, katolizismoaren alde. Alegia, bietan katolizismoaren alde. ■